

KOSMOPOLITISMOA ETA EUSKAL KULTURAREN BIZIRAUPENA

Andoni Esparza Leibar

Zuzenbidean Lizentziatua. Udal Idazkaria (Nafarroa)

1. KULTURMUGIMENDUAK

Kulturaren arloan, prozesu bikoitz batean gaude: alde batetik pluralismoruntz goaz, eta bestetik, batasun kulturalera.

Ekonomi liderargoa duten estatuetakoko sistema demokratikoei esker, munduko gizarte boteretsuenak pluralak dira gaur egun. Askatasunak gero eta aniztasun edo pluraltasun haundiagoa pizten du herri horien barnean.

Baina, beste aldetik, nazio garatuaren kultura cosmopolita azkar sartzen ari da beste munduko kulturen orde, pobretze arrisku haundi bat sortzen.

Kultur batasunerako prozesu hau oso zaharra da (Hor dugu Kristautasunaren edo latinaren zabalkundea, Islam'ena, edo mendebaldeko filosofia, teknologia eta ohiturak), baina komunikabide modernoek azken hamarkadetan izan duten eraginak, lehen inork pentsa ez zezakeen neurrian bizkortu du.

Teknologiaren aurrerapenak eta sobiet blokearen deuseztapenak ekartzen dituen aldaketa politikoak kontuan hartuz, hemendik aurrera batasun kulturalerako joera hori asko indartuko dela dirudi.

2. PLURALTASUNA BALORE BEZALA

Gizarte baten funtzionamentu demokratikoak, nahi eta nahi ez bere barnean kultur aniztasuna sortezatzen du. Historian zehar, gizarte homogeneoak lortzeko saio asko egin dira. Hau, populazioaren zati baten aurkako jokabide errepresiboa bat suposatuz gain, pobretasun intelektual bat ekartzen du beti, baita impositatu nahi den kultura barnean ere.

Gaur egunean, pluraltasuna aberaztasun bezala eta ez problema bezala kontsideratzen dutenak, gutxiengo bat dira.

Aniztasun kulturala, aniztasun genetikoarekin gertatzen den arabera, aldaketen aurrean adaptatiboagoa da. Gizartean ideologia eta pentsamendu era desberdinak egon behar dira. Hauek, etengabe eztabaidatuak, gertatzen diren problemen aurrean, erantzun sorta haundiago bat eskeintzen dute. Horre-

gaitik, ideia desberdinen ugaltzeak emankortasuna sorterazi ahal du.

Beste aldetik, eta pluraltasun horren barnean, nazional kulturek betebeharrak garrantzitsu bat dute. Gaur egunean, gisakia askotan babesgabe eta bakardadean sentitzen da, bere telebista entxufatu ondoren ikusi ahal duen mundu itzel baten aurrean.

Kultur unibertsalaren eta gizaki indibidualaren artean neurri gabeko sakana bat dago. Baina une hori, nazional eta toki-kokarekin beteta egoten da, eta horrela gizaki bakoitzak zerbaiten zatia gairela sentitzen dugu.

Gizatenaren parte sentitzen den gizona edo emakumea, baita ere nazio, herrialde, hiri eta sendi batekoa da.

Horrela, bere mundua estrukturatzen du, eta oinarri bat lortzen du bere nortasuna eraikitzeko.

Parte-izate sentimendu hori borondatezkoa eta gizaki bakoitzengandik erabakia dela kontuan hartzen ba dugu, nabaria da zein positiboa den nazional kulturaren iraupena.

Baina kultur nazional bakoitzaren barruan ere desberdintasunak daude, bai barne prozesuengatik edo bai beste nazioetako elementuak erantsi egiten direlako. Mundu guztian ematen den aniztasun hau atzeraezina da, eta baikortasunez aprobetxatu behar da, kultur nazional ongarrizatu dadin. Horrela ahal dira kontserbatu, bai lehengo berezko kulturak, eta bai forma berriak —berdinki nazionalak— beste ideiekin hibridatu ondoren sortutakoak.

Gure ikuspuntua irudi baten bitartez adierazteko, imajina dezagun pintatzaile baten adibidea. Bere paletan dituen oinarriko kolore gutxi batzuekin, tonalitate kopuru infinitu bat sortarazi ahal du, lehenengo pinturak neurri desberdinetan nahastuz.

Zer egin behar du?

— Bere pintura guztiak batera nahasten ba ditu, pasta gris bat besterik ez da aterako, eta gainerako margoak desagertuko dira.

- Ez dirudi interesgarria ere, oinarritzko pinturak ahaztea eta barrik tonalitate berriak erabiltzea.
 - Zergatik ez kontserbatu margo guztiak, gero eta gehiago zabaltzen den abaniko bat konposatuz, eta tonaliterik galdu gabe?
- Azken ikuspuntu hau da, guk proposatzen duguna.

3. EUSKALKULTURA

Euskal kulturaren bizkarrezurra euskera da

Beste nazio batzuekin konparatuz, Euskalherriak ez du estatu propioirik ezta erlijio berezirik. Faltatzen zaio prehistoria homogeneoa gizaldien zehar, edo intelektual tradizio dirdiratsu bat.

Jantzi tipikoak, sukaldaritza, musika, dantzak, herri kirolak edo arkitekturako fiabardura berezkoak, gaur eguneko hirietako bizitzan kondar elementuak dira, bai hemen, bai beste edozein nazioetan. Kosmopolitismoak eremu hauek bereganatu ditu, eta normalean lehengo formak urtean zehar bakarrik jai egun gutxi batzuetan ikusten ditugu.

Horregatik, Euskalherriko kultur faktore garrantzitsuena hizkuntza dugu. Bera da euskal kulturaren biziraupenerako ardatz nagusia.

4. EUSKALHERRIARI BURUZKO ZENBAIT DATU

Beste batzuen artean, Euskadik ezaugarri hauek ditu:

- 1.— Frantsez eta espainiar estatuen artean banatua dagoen 2.918.704 biztanleko herri txiki bat da.
- 2.— Euskalherria hiru lurralde desberdinetan zatitua dago: Euskal Elkarte Autonomoa (2.157.598 biztanle), Nafarroa (523.977 b.) eta Iparralde (237.129 b.).
- Zatiketa hau urte askotarako jarraituko du, kontuan hartzen badugu botu abertzaleek Nafarroan bakarrik %25 suposatzen dutela eta Iparralden ez direla %10 iristen. Euskal Elkarte Autonomoan beraz, %66 dira. Portzentai hauek nahiko egonkorak dira.
- 3.— Gutxi gora behera, 600.000 pertsona euskeraz hitz egiteko gai dira. Hala ere, eta europear hiritar normalekin konparatzen baditugu, seguraski %10 ere ez da euskeraz alfabetatze maila berdiner iritsiko.
- 4.— Euskalherria europear mendebaldean kokatua dago, demokraziak oso errotuak dauden toki batean. Euskal gizartearen funtzionamendu demokratikoak, derrigorrez bere aniztasuna ekartzen du, egon ahal diren kultur dirigismoak mugatuz. Banaketa administratiboak bestalde, zentzu berdinean jotzen du.
- 5.— Europear batasunak eta migrakuntza mugimenduen gehikuntzak, joera cosmopolita gero eta gehiago sendotuko dute.
- 6.— Euskal gizartearen ematen diren zatiketa politiko sakonek ere, hizkuntza berrezkuratzeko lanak ostopatzen dituzte.

5. HIZKUNTZA BERREZKURATZEKO PROBLEMATIKA

Oso lan zaila da gaur egunean euskerak duen egoera neurtzea.

Alde batetik, ahozko erabilpen ikuspuntutik hain zuzen, sekula ez da egon hain egoera larri baten aurrean. Gaur egunean, gure hizkuntza hitz egiten duen populazioaren portzentaia, historian zehar egon den txikiena da. Ia ez dira elebakar euskaldunik gelditzen eta bere eguneroko solas gehiena hizkuntz hone-tan hitz egiten duen lagunen kopurua, arin jeizten da.

Bainan, beste alde batetik, hasi gara urte askotako lanaren fruituak hartzen: hizkuntzaren batasuna lortu da eta euskara idatziak, nahiz eta neurri txiki batean, edozein gaiaren tratamenduan erabiltzen da. Komunikabide moeta guztietara baita heldu da eta baita umeei euskeraz emandako irakaskuntza oso zabalduta dago.

Ahaztu gabe espainiar eta frantsez estatuetako administrazioek bultzatu dutela, neurri desberdin batean historian ze-

har, euskeraren normalkuntzaren aurkako politika bat, ez da hori helburu hau lortzeko dagoen oztoporik haundiena. Benetazko problema hemen datza: nola zabaltu populazioaren gehiengo bateri gaur egunean hiritarren %20ak besterik ez hitz egiten duen hizkuntza bat, nahiz eta herriak jarrera baikor bat izan.

Abertzaleak ez diren hiritarrak dira, printzipioz, hizkuntzaren berrezkuratzeko prozesuarean aurrean pega gehiago dutenak. Jende honekin beharrezkoa da kontu haundikin lan egitea, gizakien eskubide indibidualak errespetatuz, eta diskriminatzaile edo demokraziaren aurkako edozein jokabide ebitatuz.

Puntu horretan garbi utzi behar da. Euskadin orain arte ez ba dira hizkuntza-gatazka asko izan, hau euskeraren erabilpen urriarengatik dela.

Hiritar ez-euskaldun gehienak, sekula ez dute eduki mugapenak eguneroko aktibitatean, bere euskeraren ezagutzagabetasunarengatik. Bainan berrezkuratzeko bidetik aurreratu-ko garenean, enfrontamenduak nahitaezkoak izango dira.

Euskal Herriak, belaunaldi asko direla, bere betiko kulturaren deskonposaketataz kontziente da. Gauza horrek pizten duen beldurrak, historian zehar eta politizaren arloan, jarrera defentsiboak eta autoritarismo kutsatuak bultzatu ditu. Faktore hau, bai karlismoan edo Arana Goiriren ideologian eta bai populazioaren zati batek ETaren terrorismoari ematen dion laguntzan, ahal dugu aurkitu.

Halako erreakzioek oso arriskutsuak dira, bere ikuspuntu eskorrarengatik.

Alde batetik, emotzioaren faktoreak inteligentziaren gain jartzen badira, errealtatearen ulermena galerazten da eta baita ere hura aldatzeko planifikatzen diren ekintzena. Aipatutako proposamenek, hizkuntzaren arloan askotan uste dute euskera berreskuratzeko modurik oberena, erderari oztopoak jartzea dela. Errealtatean, nahiz eta euskera oso landua izan militante talde txikien barnean, honekin lortzen dena zera da: hamerrenak apurtzea herriaren zati batekin. Behar bada, pertsona haiek ez zuten oso ikuspuntu finkatua euskeraren aurrean baina, erasoaren ondoren, aurkako jarrera bizia hartzen dute.

Hortaz gain, kontuan hartzen badugu bai Nafarroan eta bai Iparraldean, hiritar gehienak praktikan jarrera hotz bat dutela euskeraren aurrean, garbi gelditzen da nola, aipatu diren bezalako portaerak, zoritxarreko ondorioak ahal duten ekarri.

6. EUSKAL KULTURAREN BIZIRAUPENERAKO PROPOSAMENA

6.1. Euskeraren berreskuratzeko

Euskeraren jarraikortasunak, euskal kulturaren biziraupena ziurtatzen du. Horregaitik, populazioaren gehiengoak erabiltzen duen hizkuntz bat bihurtu behar da.

Arlo horretan arazo haundiena, zera da: lortu jendearen gehiengoa euskeraren alde egotea eta berrezkuratzeko prozesuan ahal diren hizkuntz-borroka gehiena ebitatzea. Horregaitik, euskera abertzale folklorearekin lotzen dituen jarrera defentsibo eta eskusibistak alde batera utzi behar dira.

Beharrezkoa da ikuspuntu zabal eta integratzaile bat hartu, gaur egun euskeraren alde ez dauden gizarteko sektoreen artean baiezko jarrerak lortzeko. Beste alde batetik hizkuntzaren erabilera bizitzaren arlo guztietara zabaltzea behar da. Euskalherrian kantitate eta erabilaren kalitatearen aldetik, frantsesa edo espainieraren maila berdinean jartzeko.

Ez dugu ahaztu behar, nahiz eta euskera berreskuratzeko prozesoa emaintza on batzuk eduki, elebitasuna herri honen egoera normala izango dela, gutxienez belaunaldi batzuetan. Jendeak euskeraren aurrerapenak ez ostopatzeko, gure hizkuntzak ez du suposatu behar muga gehiegi bere eguneroko bizitzan. Horregaitik, eta adibidez, guztiz erdaldun den herri batean, ezin da eskatu euskera jakitea lanpostuen portzentai nabari bat betetzeko, horrek kontraktasun asko piztuko zuelako. Hori bai, seguraski gizaki horren gehienak, bere semeek eskolan euskara ikasi ditzatela nahiko dute, etorkizunean eta lanpostuak aurkitzeko momentuan, posibilitate gehiago izan dezaten. Laburtuz: botere publikoek gogoarekin bultzatu behar dute hizkuntzaren normalkuntza, baina onartutako helburuek hiritarren eskubideak errespetatu behar dituzte eta baita ere gizarteko errealitatea kontuan hartu, gatazkarik ez sortzeko.

Pentsatu behar da hemendik laisterrera, eta Europako beste herrietan gertatzen ari den bezala, Euskadira Hirugarren Munduko nazioetako eta zonalde pobreetako inmigranteak etorriko direla. Gure herriak jarrera zintzo bat izan behar du, eta zabalik mantendu bere ateak. Euskalherrian bizi den inoreri ezin zaio eskatu bere jaiotzeko hizkuntza, erlijioa, ohiturak edo sorterriko aberriarekin duen loturak hutzi dezala. Bakarrik baldintza bat jarri behar da etorberri horiek, gizarte mailan, euskaldun bezala onartzeko: euskera ere, bere hizkuntz propio bezala kontsideratu behar dutela, eta ez oztopatu hizkuntz-normalizazioaren alde egiten diren ahaleginak.

Hizkuntza berreskuratzeko oinarriak eskolan jartzen dira, baina gero lanaren munduan ez bada eskatzen edo baloratzen, ikaskuntza lan hori alferrik egingo da, eta euskera, latina

edo greko klasikoa bezala, irakasgai aspergarri bat besterik ez da izango.

Admistrazio Publikoak ahal du hizkuntzaren ezaguerari lagundu bere lanpostuetarako eskaeren bitartez, baina premiazkoa da enpresa pribatuaren arloan jotake aritzea, zerbitzuak euskaraz ere eskami dezaten. Publikoaren aurrean ari-tzen diren lanpostu guztietan langile elebidunak egotea lortzen bada, honek beharrezkoa egingo du langile euskaldunak lan administratiboetan izatea, eta pixkanakan pixkanakan, lanpostuen portzentai haundi batetarako euskeraren ezaguera beharrezkoa egitea lortuko da.

6.2. Kultura eta askatasuna

Norbaitek pentsatuko du ia ari naizela hizkuntza, euskal kultur osoarekin identifikatzen. Ez da hau nire nahia.

Esan dut aurrez, euskera gure kulturaren bizkar-ezurra dela. Horregaitik, eta bere degradazio maila kontutan harturik, nahi ta nahiezkoa da Administrazio Publikoek bere eskuetan berreskuratzeko prozedura horren ardura hartu dezatela. Hau eta jakinaren transmisioarekin zerikusirik duen beste kasuren bat kenduta, kultura botere politikotik autonomia izan behar da.

Horregaitik, eta batez ere kreatibitatea erabili behar den esparruetan, ezin da kultur planifikazio orokorrik egin.

Euskal kultura, beste herrietakoak bezala, azken instantzian pertsona bakarrik edo talde txikiak egiten dute, eta bakoitzak bere sensibilitatearen arabera moldatzen du. Horrek dakarren inprediktibitatea da, beraz, kulturaren xarmarik haundienetarikoa.